

# ORRATZA

# LEHEN AGERKIA

*Mariun sukaldean*

## I

**MARIUN** (*kexu-kexua*): Aaa, xerka-zan, haurra! Xerka orratza! Xerka untsa!

**XEXILI**: Xerkatzen dut, etxekanderea, untsa xerkatzen oraino, baina ez da probetxurik, ez dut kausitzen...

**MARIUN**: Eta hi, zer ari hiz hor, bi besoak dilindan? Muthiko pikaroa, ez hiz ukurtzen ahal ere?

**KOXE**: Baina,... baina... xerkatzen dut!

**MARIUN**: Bai, uste nitek (*mazelako bat emaiten dio*) To! Ikazak obeditzen!

**KOXE**: Ai!

**MARIUN**: Ale! Belhauniko, eta lixto! Mia harmario azpia, banka-azpia, baxerategi-azpia!

**XEXILI**: Ez dut fitsik ikusten, etxekandere!

**KOXE**: Debru fitsik ez da azpi hontan!

**MARIUN**: Xerka! Inutilak! Inuxentak! Beharko duta nihaur lauazka mublen azpian ibili, ene adinean?

**XEXILI**: Baina nik...

**KOXE**: Bainan guk...

**MARIUN**: Jaten ezin har piltzar batez inguraturik! Miatu duzueia ondarki-untzia?

**XEXILI**: Ez!

**KOXE**: Ez!

**MARIUN**: Zeren beha hago hor Xexili madarikatua!

**XEXILI**: Johan niz (*untzia hartzen du, lurrian itzultzen eta husten ondarkinen ikertzeko*).

**MARIUN** (*KOXEri*): Eta hi, Koxe, huni e, amiratua! (*ximikatzen du*).

**KOXE**: Atx! Ximikatzen nuzu! Besoa funditzen dautazu!

**MARIUN**: Alferra hi! Nagi hutsa (*beharria tiratzen dio*).

**KOXE**: Ou! Beharria! Ou beharria!

**MARIUN**: Are! Erna norapait! Mia hautsak!

**KOXE**: Bon! Bon! (*bilhatzean, hautsak ihaurtzen ditu*)

**XEXILI**: Deus ez!

**KOXE**: Deus ez!

**MARIUN**: Nik behar nuen oraino malhur hori! Jainko maitea! Bilha zazue ba!

**XEXILI**: Orotan xerkatu dugu!

**KOXE**: Bethi bezain gibel izaiteko! Ez uste izan bihar artio xerkatze ariko girela!

**MARIUN**: Hunen bekokia!... Zer tuk arrazoin tetele hoik! Mukuzua ez bertzea (makil ukaldi). To!  
To! Makila hautsiko dauiat sorbalden gainean!

**KOXE**: Aï! Ou! Hi! Ooï! Hau emazteki gaixtoa!

**MARIUN**: Joitearen bortxaz, beharbada atxemanen duk.

## II

**SANTSIN**: Hau arramantza! Ala fe, Garruzeko ferian etxu holako arrabotsik! Karrikatik ezagun txu hemengo oihugarraziak!

**MARIUN**: Ah! Hor zirea, Santsin!

**SANTSIN**: ba, ba hemen nuxu, eder eta fresko, saltsan bezain aphaindua, ikusten duxun bezala!  
Dena partha eta ixtila duxu xure landa. Nihaur ere lohi puxka bat bilhakatia nuxu.

Ilhea lohi, bizarra lohi, eta galtzak buztin-gorri!

**MARIUN**: Gaixo Santsin, ez da deusik hori!

**SANTSIN**: Ez dela deusik! Aise ari xira, xu! Landan baxine!

**MARIUN**: Bazinaki zer pasatu den sukalde huntan!

**SANTSIN** (*Bazterrerri behar*): Egia erran, desbitxa ederra duxu barre huntan! Oro airean!

Hautsak eta ondarkinak zangoen azpian!

**MARIUN**: Ah! Bazinaki, Santsin gaixoa!

**SANTSIN** (*Aire grinatsu batekin*): Zer gerthatu zautxu ba!

**XEXILI eta KOXE (Elgarrekin):** Etxekandereak galdu du...

**MARIUN:** Zauzte ixilik, zuek, inbixilak! Eta horiek oro zerengatik? Eltzearengatik, beltzebutengatik era zure galtzengatik, heien sarestatzen ari bainintzen, gixagaizoa!

**SANTSIN:** Ez tixut porrurik konprenitzen!

**XEXILI:** Zu bakean zien Belegorriko landan. Bazinaki zer bizia ereman dugun hemen?

**SANTSIN:** Errazie ba, azkenean, nik ere jakin dezadan!

**MARIUN:** Ai, ai, ama!

**XEXILI:** Etxekanderea kadiran jartzen da eta zure galtzak galdegiten dauzkit behar dautzula pedaxu bat ezarri ipurdian... Bizpahiru pondu ez zituen egin...

**KOXE:** Horra nun gatuak jauzi egiten duen mahain horren gainerat, sudurra eltzeari, eta pusako batez estalgia aurkitzen du...

**XEXILI:** Mariun xutitzen da, oihuka: "*Hoa hortik, Beltzebut!*"

**KOXE:** Zure galtzak erortzen dira, maila airez-aire igortzen dio, gatuak jauzi.

**XEXILI:** Eta eltzea uzkaizten da porruak alde guzietarat darizkola!

**MARIUN:** Ba, eta geroztik ez dugu gehiago ikusi!

**SANTSIN:** Zer ez ikusi? Gatua?

**XEXILI:** Ez!

**SANTSIN:** Eltzea?

**KOXE:** Ez!

**SANTSIN:** Ene galtzak?

**XEXILI eta KOXE:** Ez, orratza!

**SANTSIN:** Nungo orratza?

**MARIUN:** Ene orratz ederra, Santsin gaixoa! Ene orratz luze, orratz fina. Ane altzeiruzko orratz maitea.

**SANTSIN:** Orratza! Hoinbertze kalapita orratz batentzat? Oihu nigar, marraska: Eta patata xurikin hoik sukaldearen erdian... orratz batentzat?

**MARIUN (en colère):** Zer orratz batentzat? Miserablea! Ez dakizu ba zonbat gusta diren?

**SANTSIN:** Bo! Paketak zonbat egiten tixi?

**XEXILI:** Bortz libera.

**SANTSIN:** Bortz libera! Beha zazu ba!

**MARIUN:** Paketean ez dira hamar baizik.

**SANTSIN:** Halere! Duzun fortunarekin...

**MARIUN:** Fortuna? Zer derasazu? Pollita litake ene fortuna orratzak urean barna igortzen banitu!

**SANTSIN:** Alo! Alo! Mariun! Orratz baten makurrak ez ahal zitu tturinduko?

**MARIUN:** Horra zer behar den aditu, hazten ditugun jendenganik! Segur niz orotan konda eta konda zabiltzala Mariun aberatsa dela; dirua metaka biltzen duela; murru-ziloetan ere gordetzen duela zernahi urhe, zilhar eta paper urdin. Zu zirela kausa, xoinak jinen zaizkit eta hilen nute.

**SANTSIN:** Zaude ixilik, emaztekoa. Etxit nik deus holakorik erraiten... Bainan orratz batentzat, zinez!

**MARIUN:** Horra zer den alargun izaitea! Ah! Ene Pattin zenak ikusten banu!

**SANTSIN:** Har-zazu bertze orratz bat paketean eta emazu bakea.

**MARIUN:** Bertze bat!... Bertze bat... Badakizu zer mintzo ziren? Fite fini litake paketa, hats hortan enplegatzen baginitu!

**SANTSIN:** Kasu gehiago eginen duxu berriari.

**MARIUN:** Xaharra arras eskukoa nuen.

**SANTSIN:** Baina galdua denez geroz!

**MARIUN:** Xerka zazu, kausituko duzu.

**SANTSIN:** Hori ez txu ene lana! Zertako dituzu muthila eta neskatoa?

**MARIUN:** Zozo hauk deusetako ez dira. Xerka zazu, Santxin gaixoa! Zu gizon seriosa zira, hainitz ikusia eta hainitz ikasia. Ene intresak atxiki nahi dituzu araz?

**SANTSIN:** Hogoita-hamar urthe huntan xuretzat lanean ari bainiz, ez ahal duzu dudarik... Bainan behin behar nikexi afaldu.

**MARIUN:** Afaldu?

**XEXILI:** Afaldu?

**KOXE:** Afaldu?

**SANTSIN:** Zer ba: Bethe zadaxu azita, Xexili!

**XEXILI:** Bainan...

**KOXE:** Ez da...

**SANTSIN:** Zer?

**KOXE:** Ez dela afaitekarik!

**XEXILI:** Eltzea uzkaile da

**SANTSIN:** Ez afaitekorik?

**KOXE:** Errana dautzugu.

**XEXILI:** Gatua dela kausa.

**MARIUN:** Ba preseski, orduan galdu baitut ene orratza!

**SANTSIN** (*hasarre*): Orratz eta marratz! Orratz madarikatu horrengatik afaldu gabe egon behar dut ba?

**XEXILI:** Gu ere bai.

**KOXE:** Gu ere bai.

**MARIUN:** Ni ere bai.

**SANTSIN:** Ja, ja, ja, ja! Soberakina duzi azkenian! Goizetik arras idia bezala lanian har, lehertia eta gero...

**MARIUN:** Ogi puska handi bat izanen duzu, gizona! Xexili, emak ogi puska handiño bat.

**SANTSIN:** Ogia! Ogia! Hauxe dixigu afari ederra!

**KOXE:** Ez gira garizuman!

**MARIUN:** Kaxu min har, haurra, kanita horrekin. Emadan ogia; nihaurt pikatuko diat. Orizu, ogi kantail eder hau zuretzat Santsin!

**SANTSIN** (*Zinkurinaz*): Hum!

**MARIUN:** Hiretzat, Xexili! Hiretzat, Koxe!

**KOXE:** Xerra meheño hau bakharrik?

**MARIUN:** Beha zozue horri? Kukusen bezanbat ez izaki-eta, otsoak bezenbat jan nahi!

**KOXE:** Preseski, handitzeko!

**MARIUN:** Ba, hi beti arrazoinka! Nik hasteko, ez dut batere janen. Estomaka arrunt bildua dut, ez bainezake ahamen bat ere irets.

**KOXE:** Estakuru ederra, bertzen gose atxikitzeke.

**MARIUN** (*Samurtuz*): Ene interesak begiratu nahi bazinituzte, ni bezain penatuak eta trixtatuak behar zitezketekete.

**KOXE:** Alabainan, ogiak, dolu egiten!

**MARIUN:** Hi, hago ixilik, hire onetan. Aditu duk.

**KOXE:** Gerrena bezainmehea niz etxe huntan! Sobera xuhurra eta zikina zira, azkenekotz!

**MARIUN** (*hats-bahituta*): Zer? Zer?... Kakazu horren ahotik zer aditu behar nuen!... (*paloak ematen diozka*) To! To! Irakatsiko dauiat etxekanderearen errespetua!

**KOXE:** Oh! Ez hazi nahi eta oraino joiten! Nun da justizia?

**MARIUN:** Are! Habil hemendik. Ez haut gehiago ikusi nahi, alferra ez bertzea!

**KOXE:** Hori duzuia! Jainkoak ez zitu benedikatu.

**MARIUN** (*makila hartuz*): Errabiarazi nahi nuka?

**KOXE** (*nigarrez ihes eginez*): Hi, hi, hi... hil nahi nu (*eta atheratzeko kinkan aphilago*) atso tzarra, ordaina izanen dun.

### III

**MARIUN:** Egundaino!... Urdia!

**SANTSIN:** Hauxe dixigu egun ederra! Bai, egun ederra! Zer asea egin dutan haatik xure ogi puskarekin! Brien bisaia!

**MARIUN:** Xerka zazu ba poxi bat, Santsin gaizoa. Segur niz zuk atxemanen dautazula!

**SANTSIN:** Ja, ja, ja... asetxea nuxu orratz demonio hortaz... Estomaka korropilatzen dautaxu!

**MARIUN:** Ez, Santsin, utz-azu mutur salda hori!

**SANTSIN:** Zer nahi duzu bilha dezadan! Ilhantze huntan ez duzu deus ere ikusten.

**MARIUN:** Utz dezagun bada orrantza bere ohandzean. Bihar goizean, xerkatuko dun, Xexili?

**XEXILI:** Bai, etxekandera.

**MARIUN:** (othoitz egiten du): San Antonio Padukoa, entzun-azu ene othoitz! Ene orratza atxemaiten badut... ene orratz ederra... hitz emaiten dautzut tortxo handi bat, eta erretzerat utziko dutala bururaino!

# BIGARREN AGERKIA

*Karrikan. Alde batetik Pegar baita. Bertzetik Xauxunenea.*

## I

**KOXE** (*bakarrik, bere ogi-xerra jaten duelarik*): Ah! Sortgin zaharra, jo nun, zimikatu nun, beharriak tiratu dauzkidan. Hitz eta promes daunat ez hutala huts eginen, parada dukatenean. Aditu nahi ez duenak ezkilarik ez dezala tira kordarik... Afariteko tenoreak segurik aspaldi jo du ene tripan. Debrintxoa gose niz... Ea, behako bat Gregoriaren sukaldeari! (*leihotik so egiten du*) Mahainean jarria da gaixoa afari ontto baten aintzinean! Hou! Zopa horren usainari! Alta xingarrak ere itxura ona du! Ez nauke! (*Leihoari joka*) Gregoria! Gregoria! Jainkoak dagizula gau on!

**GREGORIA** (*barnetik*): Hi hiza, Koxe! Gau on!

**KOXE**: Egizu afari, Gregoria!

**GREGORIA**: Gauz beza, puttil!

**KOXE**: Ba nik laburra dut laburra, gaurko afaria!

**GREGORIA** (*leihorat heldu da, ahoa betherik*): Hire afaria? Zer? Ez ahal duk ogi-xerra hori?

**KOXE**: Ba, maluruski, idorrik eta hutsik, deus jakirik gabe!

**GREGORIA**: Giza-gaizoa! Xingar xaflaño bat emanen dauiat gainean ezartzeko.

**KOXE**: Hori haatik!... Bai plazer egin zinezaket!

**GREGORIA**: Bainan, harritzen nuk! Mariunek ez hobeki hazten?

**KOXE**: Zer nahuzu! Hain pobre da!

**GREGORIA**: Pobre? Mariun? Behauk hortik! Irriz ustel-arazi nahi nuk!

**KOXE**: Ba, berri-berrikitan oilo xuria ebatsi diote, egun guzkiez erruten zuen baxharra!

**GREGORIA**: Oilo xuria ebatsi?

**KOXE**: Badakizu nortaz jelostua den?

**GREGORIA**: Nortaz?

**KOXE**: Ez duzu nehori salatuko, erraiten badautzut?

**GREGORIA**: Zertako nahi duk salatzea? Nork ebatsi dioke?

**KOXE**: Haren arabera... bainan othoi ez duzu saltsarik nahasiko?

**GREGORIA**: Zer apentzia? Zer joan zait eni?

**KOXE**: Horra... erraiten du zuk egin diozula!

**GREGORIA**: Zer?

**KOXE**: Zuk... edo zure neskatoak:

**GREGORIA** (*ez jakinez ea irri egin behar duen ala hasarretu*): Espres ari hiz, arai?z?

**KOXE**: Ez, ez, zin-zinez! Xexilik segurtatuko dio bazkariteko erre-arazi duzula.

**GREGORIA**: Jesus! Zer dute ixtorio hori berriz ere!

**KOXE**: Ba eta hexurrak ere ezagutu omen ditu zuen ongarriaren gainean!

**GREGORIA** (*furian jartzen da*): Hoi haatik! Nik hari oiloak ebatsi! Soberakina da! Pozoin tzarra!  
Ez diat kitorik utziko!

**KOXE** (*Kontent*): Etzitela samur, Gregoria! Etzazula erran deus ere badakizula/

**GREGORIA**: Jin bedi jeusen aipatzerat. Hitz dauiat irri eginen dugula.

**KOXE**: Bainan etzozula zuk lehenik aipha! Ez nezazula eman barne, Gregoria!

**GREGORIA**: Zer kopeta! Ikusiko du...

**KOXE**: Ez dut nik deus hobenik.

**GREGORIA**: Tantiruri, oro elgar iduri. Habil harenganat, ergel alaena.

**KOXE**: Hoi haatik!... Abizatzen zitut, eta gero...

**GREGORIA**: Errok xehetasunak nahi baditu, haren zerbitzuko nizela hemen! Gau on! (*leioa hesten dio sudurrerat*)

**KOXE**: Hau ixtorioa! Ene falta dea? Eta xingarra? Eta zopa? Huni ere mendekatu behar nitzaio!

*(MARIUNen etxerat buruz doa; etxekanderea atheratzen da hainbertzenarekin)*

## II

**MARIUN:** Norat joana hintzen? Ze duk ala gaua kanpoan pasatu nahi?  
**KOXE:** Etxekanderea...  
**MARIUN:** Ea, hemendik oherat fitexko, ez baduk nahi nik beharritik laguntzea...  
**KOXE:** Ez! Adi nezazu, Mariun! Badakit nun den zure orratza.  
**MARIUN:** Zer! Badakikala nun den orratza?  
**KOXE:** Bai zerbait gogoratu zait, arrunt ahantzia nuena...  
**MARIUN:** Zerbait? Errak bada fite!  
**KOXE:** Oxtian, xerka ari ginelarik...  
**MARIUN:** Eta?...  
**KOXE:** Sukalde zolan zinen... Xexiliekin... Athera buruz itzuli naiz... Bet-betan begiak altxatzen ditut eta ikusten dut Gregoria pasatzen...  
**MARIUN:** Gregoria?  
**KOXE:** Mementoan ez dut kasu egin, bainan orai untsa pentsatu-eta... Bai ukurtu zen hola eta frixt xutitu... Zerbait bildu balu bezala athe aintzinean.  
**MARIUN:** Zerbait bildu?  
**KOXE:** Ba, eta hola egin du... Nik ez ikusteko.  
**MARIUN:** Hik ez ikusteko?  
**KOXE:** Eta badakizu zerk eman dautan gogoari?  
**MARIUN:** Zerk?  
**KOXE:** Oraintxet, haren aintzinean pasatzean, josten ari baitzen argi-pean... Haren erhien artean ikusi dut altzeiruzko orratz luze, mehe, dirdiratsu bat...  
**MARIUN:** Ene orratza alaintsot!  
**XEXILI:** Zure orratza!  
**SANTSIN (Hurbildu eta):** Etxu beraz galdua?  
**MARIUN:** Ez galdua? Ez galdua, bainan ebatsia!  
**SANTSIN:** Bederen badakizu nun den!  
**MARIUN:** Harek eni orratza ebatsi!!!  
**XEXILI:** Oh!  
**MARIUN:** Ez niz estonatzen... Aspaldian errana nuen emazte horrek ez duela fisik balio!  
**SANTSIN:** Ba, halere zure ithurriko laguna zen: zenbat oren eman ditutzu harekin kalakan.  
**MARIUN:** Kalakan, kalakan! Ez du horrek erran nahi jendea estimatzen dela... Ikusten duzu orai zertaz den kapable.  
**SANTSIN:** Erreposki othoi? Funtsean zer dakizu? Orratza harena balitz?  
**MARIUN:** Harena? Ba aise!... Ez du ez harek holako orratzik. Tipi horrek berehala ezagutu du. Jujetarat eraman behar dut, deabrua ez badu...  
**KOXE:** Jujetarat, Etxekanderea? Baina jujekin badakizua zer despendioak izanen dituzun? Ez othe zinuke hobe hari berari galdatzea?  
**MARIUN:** Arrazoin duk, Koxe. Aldi huntan arrazoin duk. Goazen! Segi, zuek. Berreak behar ditu aditu!  
**SANTSIN:** Kasu haatik tronpa!  
**MARIUN:** Ez naiz airerat ari! Goazen aintzina!  
**KOXE:** (*bere buruarekin*): Hum! Uste dut orai ez dutela ene beharrik! Urrundik ikusiko dut (*Gordetzen da*).

### III

MARIUN, SANTSIN, XEXILI (gibelxka), KOXE (gorderik) eta GREGORIA

**MARIUN:** Gregoria! Gregoria!  
**GREGORIA (leihorat):** Nor da hor?  
**MARIUN:** Gregoria, turna zadazu othoi berehala, plazer baduzu, ene ontasuna! Hogoï urthe huntan auzo baigira, ez dautzut nik uli-ttita bat ebatsi. Turna zadazu enea dena bakean bizitzeko  
**GREGORIA:** Zer dun, debru nahasia, hunat jiteko hire ixtoriorekin! Muthila ere zertako ekharri dun hunat, ala ni etxean eho nahiz?...  
**MARIUN:** Zer ditun oihu hoik! Ez nun hoin aise izituko ez! Ene ontasuna nahi dinat, eta izanen dinat! Uste dun zer nahitako libro hizala? Ikusiko dun!

**GREGORIA:** Hail antzara ferratzerat, hire ontasunarekin! Hi eta hire jende piltzarrak! Kopeta badun erraiteko ohoin bat nizala? Ohoina ni? Ebatsi deunat nik?

**MARIUN:** Jakizue ez naizela airerat mintzo, frogak badituz, froga onak oraino! Ene etxean, ebatsi dautzu, bai athe aintzinean!

**GREGORIA:** Erakuskin hire frogak, erakuts!

**MARIUN:** Baditinat eta aski dun, aditu dun!

**GREGORIA:** Aise mintzo hiz! Are, are, ahatge behar hintake, sorgin zaharra!

**MARIUN:** Nor ahatge? Ez hiz hi segurik kontzientzian trebukaturik behaztopatuko!

**GREGORIA:** Beha zozue salamandrana horri!

**MARIUN:** Ematzarra, neska tzarra!

**GREGORIA:** Sar hadi hire zorritegian! Bertzenaz!...

**MARIUN:** Hi, emaztea bahiz, athera hadi hire simitzkaiolatik. Beldurtia!

**GREGORIA:** Beldur ni? Beldur ni?

**MARIUN:** Haugi ba hunako bat, santsana ez bertzea!

**GREGORIA** (*atheratuz*): Huna nun nizan, suge-bipera!

**MARIUN:** Urdesa, ez zain oren-laurden hau behin ere ahantziko!

**GREGORIA:** Zer uste dun, parasol hautsia! Bi ukumiloz hogoita bortz puska egiten hut!

**MARIUN:** Ikusiko dun, arno-kuia!

**XEXILI:** Emozuz, Mariun! Je, ausik, aztaparka-zazu! Matelak marka. Begiak errotik egin.

**GREGORIA:** Hori duna? No, atxeman, kaheka tzarra! Ikasan hire mihi zikinarent atxikitzen. No! Kaska hau ikasteko zer den lehen auzoen errespetua!

**SANTSIN:** Hep! Zer da hau? Ez dut deusik ikusten nik! Bon maitia! Gure Mariun lurrean!

**MARIUN** (*deika*): Santsin!

**SANTSIN:** Xuti hortik, Mariun! Hop là! Norat joan da basa-astafña hori? Nik matatuko dut.

**GREGORIA:** Hik? Debruen zizari-pikatzaille, iphurdi airatua!

**SANTSIN** (*MARIUNi*): Atxeman gibeletik!

**MARIUN:** No, frikuna, atxeman!

**GREGORIA:** Ah! Bipia, hi! Ene bizkarrean jostatu nahi hiz? No, hire penarentzat! Zangarretan!

**MARIUN** (*errotzen da*): Hu!

**GREGORIA:** Kontent hiza? Ez badun aski, ez pasa gabe: hire zerbitzuko nun! Gau on, xori-mamua! (*Etxean sartzen da*).

**XEXILI:** Hep, Mariun!

**SANTSIN:** Nun zira?

**MARIUN** (*zinkurinaz*): hemen lurrean! Lagun nezazu, xuti nadin!

**XEXILI:** Jainko maitea!

**SANTSIN:** Ea! Xuti!

**MARIUN:** Zure gainean kondatzen nuen, Santsin!

**SANTSIN:** Hoin fite pasatu duxu! Ilhutzen ere hasia... Bainan ikusiko duzu... Bon maitea! Bere etxeko bortha zerraturik ihes egin dixu, den bezalakoak!

**MARIUN:** Emadazue esoa, eta goazen etxerat. Hu!

**XEXILI:** Orduan zure orratza galdua da!

**MARIUN:** Galdua? Hitz demat ezetz. Mera gizon puska on bat badugu, ene senhar zenaren anai-erdia. Haren bilha igorriko dut. (*oihuka*) Koxe!

**XEXILI:** Nun da? Koxe!

**SANTSIN:** Itzali da? Koxe!

**KOXE** (*herabe bezala heldu*): Deitzen nuzu?

**MARIUN:** Bai, nun hintzen?

**KOXE:** Eta... eta... lapinen hesterat...

**MARIUN:** Hail merarenganat, berehala kiteko.

**KOXE:** Merarenganat? Tenore huntan?

**MARIUN:** Errok ikusi behar dutala, egiteko biziki seios batentzat.

**KOXE:** Bere etxean izanen dea?

**MARIUN:** Segurki baietz, tenore huntan finitzen ohi du bere afaria.

**KOXE:** Eta... nahiko duia desarranjatu?

**MARIUN:** Oh! Habil harekin, Xexili! Tonto horrek ez dauku bakharrik deus onik eginen!

**KOXE:** Ez, ez! Bakarrik johan niz!

**MARIUN:** Zoazte, biak... eta zagozte ixilik! Badut aski erranik.

**XEXILI:** Haugi, Koxe (*badoa*).

**KOXE:** Aï, aï! Saltsa hau ez othe den mintzen hasia (*badoa*).

**MARIUN:** Sar giten, Santsin! (*SANTSIN eta biak etxean sartzen dira*).



# HIRUGARREN AGERKIA

*MARIUNen etxean*

**SANTSIN:** Holaxe! Sar zite pollikiño, etxekanderia.

**MARIUN:** Ai! Doi-doia banabila! Uste dut sahets-ezur guziak hautsi dauzkidan!

**SANTSIN:** Jar zite, alki hortan!

**MARIUN:** Bai... (jarri nahi da) Hu! Oh! Ai, ai, errainak, zangoak! Deus ezin plega!

**SANTSIN:** Ea, entsea zite!

**MARIUN:** Ez, ez naiz jarriko! Jar banindadi ez ninditake gehiago xuti!

**SANTSIN:** Ohea behar duzu zuk! Xauri. Ganbaralat lagunduko zitut.

**MARIUN:** Bai, ohea!... Ez da bertze erremediorik. Haatik behar dut jaun mera mintzatu lehenik.

**SANTSIN:** Ba, bainan... nola egonen zira haren beha?

**MARIUN** (*alkiaren bizkarrari bermatuz*): Xutik goaitatuko dut, Santsin, bai xutik!

**SANTSIN:** Izanen duzua aski indar?

**MARIUN** (*handi-handia*): Mendekioak sustengatzen nu! Herrak haziko nu!

[ORRIALDE BAT-EDO FALTA]

dea hala? Orai gauza klarki badakikexu, Jaun Mera!

**MARIUN:** Bai, denak hala dira, Jaun Mera! Ez denetz haatik soberaxko, jendea ebats eta gero berriz hilka jo!

**MERA:** Ba, biziki sobera segur eta halere! Bainan afera hunek itzalño zonbait baditu...

**MARIUN:** Itzalak? Iguskia bezain argia da.

**MERA:** Ez dut erraiten... bainan... halere... Gregoria behar dugu mintzatu (XEXILIri) Zoazi haren bilha, haur maitea.

**XEXILI:** Berehala, Jaun Mera! (*atheratzen da*).

## III

**MERA:** Mariun, segur zireia erraiten duzunaz? Ez da gauza ttipia norbaiten akusatzea, eta...

**MARIUN:** Oh! Jaun Mera! Harritzen nauzu! Zer zaitzu bada ala buru arin hetarik naizela, ni? Fitsik jakin gabe, burua beroturik, mintzaten diren hetarik? Adina badut, esperientzia badut. Ez ahal duzu ene fede onaz dudatzen?

**MERA:** Ez, ez! Mariun... Bakarrik...

**MARIUN:** Ezagutzen nauzu, Jaun Mera, ene senhar zena ezagutzen zinuen. Ez gira jende zuzen eta xuxenak gure familian?

**MERA:** Baietz, bai... ez dut erraiten...

**MARIUN:** Ah! Jaun Mera, penatzen nuzu! Ez nuen holakorik uste zure partetik!

**MERA:** Eia, eia, ez zirela samur! Orizu, horra gure Gregoria!

**MARIUN:** Zainak biltzen zaizkit hura ikustean! Ez kasurik egin haren ixtorioeri, Jaun Mera! Emazte lota horiek oro, titulikatzaileak dira!

## IV

**GREGORIA:** Jainkoak dagizula gau on, Jaun Mera!

**MERA:** Bai eta zuri ere parte on, Gregoria!

**MARIUN** (*ahapeka bezala*): Lausengaria!

**MERA:** Gregoria, afera ttipi bat nahi nuke argitu!

**GREGORIA:** Bai badakit akusatu nu! Suge-bipera horrek, ziminsa horrek ohoina nizela errant daut!

**MERA:** Baratxe, baratxe, ez zitela horrela asalda!

**MARIUN:** Aditu duzu? Zer mihi garbia?

**MERA:** Hasarreak ez du onik. Mintza giten eztiki!

**GREGORIA:** Gauditua niz... Jaun Mera!

**MERA:** Eia, eia, froga ditazken gauzak erran ditzagun...

**GREGORIA:** Froga ditazken gauzak? Huna bat: eguerditan aratxekia jan dut.

**MERA:** Zure dretxoaren zen, bainan ez du horrek deus ikustekorik gure egiteko huntan.

**GREGORIA:** Ez duela ikustekorik?

**MARIUN** (*ahapeka*): Burutik badu!

**GREGORIA:** Ene ondarkin guziak miatzen ahal ditutzue: oilasko hexur bakhar bat atzemaiten daduzue...

**MERA:** Ez dugu jakitearen beharrik zer duzun jaten edo edaten.

**GREGORIA:** Barkatu! Barkatu! (*XEXILI erakutsiz*) Xexili xirtxil horrek behar du hemen aithortu denen aintzinean, ene kontra erran duen gezurra!

**XEXILI:** Oh!

**MERA:** Hori bertzalde duzu... Zeren josten ari izan zira arratsalde huntan?

**GREGORIA:** Josten? Zer? Josten?

**MERA:** Bai, esadazu errepastua.

**GREGORIA:** Aithor dautzut galde horrek estonatzen niela.

**MARIUN:** Ikusten duzu, Jaun Mera, ez du ihardetsi nahi.

**MERA:** Estona ala mestona, emazu othoi arrapostua.

**GREGORIA:** Egun ez du deus ere josi. Ez dut sekulan josten. Ez dut sufritzen ahal josturan hartzea. Ene linja kanporat igortzen dut sarestatzerat.

**MARIUN** (*ahapeka*): Abilki mintzo da!

**MERA:** Norbaitek erran du bada ikusi zaituela.

**GREGORIA:** Nor ere baita, errozu ene partez goraintzi eta amets egin duela. Utz ditzagun pegesa horiek. Huna juna niz frogatu naiz ez dutala ebatsi.

**MERA:** Preseski...

**GREGORIA:** Har azu argi bat, zoazi Mariunen oilotegirat. Haren oilo xuria han da.

**MARIUN:** Ene oilo xuria? Behar ere!

**GREGORIA:** Bai, nihaurk ikusia dut. Horrek erran nahi du gezurra pentsatu dutela ene fama zikindu nahiz.

**MERA:** Eia, eia, utz dezagun ixtorio hori.

**MARIUN:** Zer derasazu? Ene oilo xuriak ez du frogatzen ez dautzula ene orratza hartu!

**GREGORIA:** Har-zazu argi bat, zoazi Mariunen oilotegirat.

**MERA:** Haatik akort behar zertaz duzun auzia! Orratz batez deitu nute hunat.

**MARIUN:** Ebatsi daitatena.

**GREGORIA:** Nork?

**MARIUN:** Zuk.

**GREGORIA:** Nik? Orratz ebatsi? Oiloa ez zena aski?

**MARIUN:** Zer oilo?

**GREGORIA:** Nik ebatsi dautzulakoa:

**MARIUN:** Nork akusatu zaitu?

**GREGORIA:** Zuk!

**MARIUN:** Nik? Ez dut sekulan oilorik aipatu ere.

**MERA:** Eia, eia. Nunbait izan behar da nahaspildura zerbait. Nundik sortu da oilo ixtorio hori?

**GREGORIA:** Koxe, haren muthil ttipiak parte egin daur medisentzia hortaz.

**KOXE** (*bere xokoan*): Ai!

**MARIUN:** Koxek?

**MERA:** Eta nork eman zautzun zuri segurtamena Gregoriak orratza hartu zautzula?

**MARIUN:** Eta... Koxek!

**MERA:** Oh! Oh!

**KOXE** (*bere burua gordez*): Ai, ai!

**MERA:** Nun da Koxe hori?

**MARIUN:** Koxe, haugi hunat!

**KOXE:** eta... barkatu... Deitzen nazu? Lo nindagon!

**MARIUN:** Lo! Iratzartuko hugu, apho tzarra!

**MERA:** Hurbil zaitte, Koxe! Aithor aitzu zure gezurrak.

**MARIUN:** Eta hitz dauiat pekatuko ditukala!

**MERA:** Eia, eia, errak egia, hizan bezalako frikuna!

**KOXE:** Horra, jaun mera... Hala da... Baditake gauza batzu erran ditudan... Noiz nahi erreberiak baditut.

**MARIUN:** He? Zer?

**MERA** (*irriz*): Erreberiak!

**KOXE:** Ba, jaun mera! Ahuleziak egiten daut ez bainiz untsa hazia...

**MARIUN:** Hunen kopeta!...

**MERA:** Ez untsa hazia? Bainan... hire sehi lagunak ez dira ba pleinitzen!

**SANTSIN:** Ez pleinitzen... ez pleinitzen... baditake gu ez; gure estomaka da pleinitzen...

**MERA:** hum!

**MARIUN:** Bon! Bon! Aldi huntako barkatzen diot: onegia naizelako, funtsean!